ORDENANTZA 22. ZK

AGURAINGO UDALA **ARABAKO LURRALDEA**

JOLASTOKI ETA GOIZEKO GELA ZERBITZUA EMATEAGATIKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Udal honek, Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauarekin bat etorriz, zerbitzuak emateagatiko eta jarduerak egiteagatiko tasak ezarri eta galdatzen ditu, Ordenantza honetan ezarritakoaren arabera.

2. artikulua.- Ordenantza udalerri osoan aplikatzen da.

II. ZERGA EGITATEA

3. artikulua.- Zergapeko egitatea Jolastoki zerbitzuaren erabilera eta Goizeko gela izeneko zerbitzua dira.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua.- Zergadun gisa, subjektu pasibo izango dira Foru Zerga Arau Orokorraren 36. artikuluan aipatzen diren pertsona fisiko eta juridikoak eta erakundeak, baldin eta Jolastoki zerbitzua edo Goizeko Gela zerbitzua eskatzen badute.

Adingabearen legezko ordezkariak behartuta daude tasak ordezko gisa ordaintzera, ondorio guztietarako.

IV. JOLASTOKI ZERBITZUA

5. artikulua.- Udal Jolastoki zerbitzua erabili ahal izango dute 1 eta 12 urte bitarteko adingabeek, eta zerbitzu hori gehienez ere ordu bat/eguneko baliatu ahal izango dute.

6. artikulua.- Jolastokia, oro har, urriaren 15etik maiatzaren 31ra arte egongo da zabalik, eta egun horiek aldatu ahal izango dira zerbitzu hori emateko interesaren arabera.

Zerbitzua emateko ordutegia ikasturte bakoitzerako ezarriko da.

7. artikulua.- Jolastokiko zerbitzuaz balia daitezkeen haurren gehieneko kopurua 150 izango da, eta gutxienekoa 50 haur; hala ere, orduko gehienez 26 izango dira.

1 eta 3 urte bitarteko haurrek heldu batekin egon beharko dute.

8. artikulua.- Inskripzioa Udalean egingo da, ezartzen diren epe eta datetan, eta behar bezala iragarriko dira udalaren web-orrian eta ikastetxeetan.

Izena emateko epea amaituta, eta izena emandakoen kopurua finkatutako gehieneko plaza kopurua baino handiagoa bada, esleipena zozketa bidez egingo da.

Izen-ematea formalizatzeko, eta zozketa egin eta zazpi (7) egun balioduneko epean, matrikula ordaindu beharko da. Hori egiaztatzeko, Aguraingo Udaleko kontuetan egindako diru-sarreraren egiaztagiria aurkeztu beharko da, eta zehaztu beharko da Jolastokiko zerbitzuagatiko diru-sarrerari buruz ari dela, baita haurraren izen-abizenak ere.

Matrikularen prezioa pertsonala eta besterenezina da, eta horren zenbatekoa ez da itzuliko Jolastokiko zerbitzua amaitzen denean, ezta adingaberen batek zerbitzuan baja hartzen duenean ere.

V. GOIZEKO GELAKO ZERBITZUA

9. artikulua.- Udaleko goizeko gelako zerbitzua erabili ahal izango dute 2 eta 11 urte bitarteko adingabeek.

10. artikulua.- Lan egoera egiaztatzen duten guraso edo tutoreek erabili ahal izango dute goizeko gelako zerbitzua.

11. artikulua.- Goizeko gela, oro har, ikasturtearekin batera egongo da irekita, eta data horiek aldatu ahal izango dira zerbitzu hori emateko interesaren arabera.

Zerbitzua emateko ordutegia ikasturte bakoitzerako ezarriko da.

12. artikulua.- Goizeko gela-zerbitzuaz balia daitezkeen haurren gehieneko kopurua ikasturtea hasi aurretik ezarriko da, eta zerbitzua abian jartzeko gutxienez 8 adingabe beharko dira, eta gutxieneko hori ikasturte osoan zehar bermatuko da. Hilabete batean zortzi erabiltzaile baino gutxiago izanez gero, hilabete hori amaitzean zerbitzua etenda geratuko da, salbu eta gainerako erabiltzaileek beren gain hartzen badute baja hartu dutenen kuoten ordainketa.

13. artikulua.- Inskripzioa Udalean egingo da, ezartzen diren epe eta datetan, eta behar bezala iragarriko dira.

Izena emateko epea amaitu ondoren, izena emandakoen kopurua zortzi badira (ezarritako gutxieneko kopurua) eta ikasturte osoan iraungo dutela bermatzen ez bada, goizeko gelako

zerbitzua ez da martxan jarriko, salbu eta izena emandako familiek beren gain hartzen badute ikasturtean zehar zerbitzuan baja hartzen duten familien kuoten ordainketa.

Izena emandakoen kopurua finkatutako gehieneko plaza kopurua baino handiagoa bada, esleipena zozketa bidez egingo da.

Izen-ematea formalizatzeko, matrikula ordaindu beharko da zazpi (7) egun balioduneko epean. Hori egiaztatzeko, Aguraingo Udalaren kontuetan egindako diru-sarreraren egiaztagiria aurkeztu beharko da, eta zehaztu beharko da Goiz-Gelako zerbitzuagatiko sarrerari buruz ari dela, baita haurraren izen-abizenak ere.

Halaber, gurasoen edo tutoreen lan-egoera egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du.

Matrikularen prezioa pertsonala eta besterenezina da, eta horren zenbatekoa ez da itzuliko, ezta konpentsatuko ere, goizeko gelaren zerbitzua amaitzen denean, ezta familiaren batek zerbitzua amaitu aurretik baja hartzen duenean ere.

VI. ZERGA KUOTA

14. artikulua.- Ordaindu beharreko kuotak honako hauek izango dira:

Jolastoki zerbitzua	**Matrikula (edo urteko kuota) Lehen seme-alaba**	**Matrikula (edo urteko kuota) Hurrengo seme-alabak**
Jolastoki	27,25 euro/kurtsoko	18,55 euro/kurtsoko

Goizeko gela zerbitzua	**Matrikula**	**Hileko kuota**
Goizeko gela	51,80 euro	51,80 euro

Zerbitzuaren iraupenaren arabera, kuota kopuru finkoa izango da.

VII. SORTZAPENA

15. artikulua.- Kuota ordaindu behar dute Jolastokian edo/eta Goizeko Gelan sartzeko inskripzioa egiten den unean.

16. artikulua.- Zerbitzuaren onuradunak aldez aurretik baja hartzen badu, ez zaio zati proportzionala itzuliko.

VIII. LIKIDAZIOA ETA SARRERA

17. artikulua.- Inskripzioa formalizatzeko, likidazioa egingo da, eta matrikula ordaindu beharko da. Hori egiaztatzeko, Aguraingo Udalaren kontuetan egindako diru-sarreraren egiaztagiria

aurkeztu beharko da, eta zehaztu beharko da Jolastokiko edo Goizeko Gelako zerbitzuagatiko sarrerari buruzkoa dela, eta, gainera, haurraren izen-abizenak agertu beharko dira.

Goizeko gelako zerbitzuaren hileko kuota hilabete bakoitzaren hasieran zordunduko da, zerbitzuaren erabiltzaileek emandako kontuetan (hileko kuota aurreratua).

IX. KUDEAKETA ARAUAK

18. artikulua.- Inskripzioa adierazitako arauen arabera egingo da, horretarako ezarritako epearen barruan. Epe hori behar bezala argitaratuko da, eta Jolastoki eta/edo Goizeko Gelaren zerbitzuak erabiltzeko aukera emango du.

19. artikulua.- Adingabearen tutoreak edo legezko ordezkariak egingo du inskripzioa.

X. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau 2025eko abenduaren 5ean onartu zen azken aldaketaren ondoren, eta ALHAOn argitaratzen denetik aurrera jarriko da indarrean, eta indarrean jarraituko du aldatzea erabaki arte.

Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2025.12.13 00:00:04 Z